



**Arartekoaren 2013ko urriaren 8ko ebazpena. Horren bidez, Laguardiako Udalak ondoko lur-zatian obrak egitearen kontrako salaketari erantzunik eman ez ziolako hasitako esku-hartzea amaitutzat ematen da.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek jakinarazi zigun Laguardiako Udalak ez ziola erantzunik eman bere higiezinaren ondoko auzokideak egindako obren inguruan jarri zuen salaketaren inguruan.

Hain zuzen, jakinarazi zigun Páganos herriko (...)ko xx. zenbakiko higiezinan egindako obren ondorioz bi leiho itxi zirela metalezko egitura bat erabilita eta, gainera, jardinera bat jarri zutela bere fatxadaren kontra.

Hori legezkoa ote den argitzeko xedez, kexagileak salaketa bat aurkeztu omen zuen Laguardiako Udalean 2012ko irailaren 26an. Idazkian udalak esku hartzeko eta ustez behar bezalako baimenik ez zeukaten obra haiek kentzeko eskatu zuen.

Kexagileak adierazi digunez, ez du bere erreklamazioari erantzuteko hartu diren neurriei buruzko inolako erantzunik jaso.

2. Hizpide dugun erreklamazioa izapidetzea onartu ondoren, 2013ko apirilaren 22an Laguardiako Udalarengana jo genuen aipatutako eskabideari Udalak emandako izapidearen eta kasu hartan jarraitutako espediente administratiboan gaineko informazioa eskatzeko xedez.

Udalak ez zigun informazioa geuk eskatutako epean bidali, beraz, Arartekoak haiek bidaltzeko agindeia egin behar izan zion 2013ko ekainaren 6an. Ondoren, 2013ko uztailaren 13an, berriro eskatu behar izan genion informazio hori bidaltzeko, eta Arartekoaren zeregina eta haren kudeaketa oztopatzeak dakartzan ondorio legalen berri eman genion.

3. Lehenengo eskabidea egin genuenetik 5 hilabete baino gehiago igaro badira ere, Laguardiako Udalak ez du gure eskariari erantzuteko legezko eginbeharra bete.

Hori ikusita, gure auziperatze-parametroei eta eskuragarri dugun informazioari jarraiki, honako gogoeten berri eman behar dizut:





## Gogoetak

1. Páganoseko (...)ko xx. zenbakiko lur-zatian egiten ari ziren lanen inguruan udalak esku har zezala eskatzen zuen salaketaren aurrean Laguardiako Udalak egindako jardueren gaineko informaziorik ez zegoela adieraztea zen aurkeztutako erreklamazioaren helburua.
2. Ezer baino lehen salatu egin nahi dugu Laguardiako Udalak erakunde honekiko erakutsi duen lankidetzarik eza. Gogorarazi behar dugu Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, lege ezarritako betebeharrak dela erakunde honek eskatzen dituen datu, dokumentu, txosten eta argibide guztiak lehentasunez eta lehenbailehen aurkeztea.

Horrenbestez, aurrekarietan egiaztatu dugun kontakizunaren arabera, udalak ez ditu erakunde honekiko dituen lege-obligazioak bete informazio- eta laguntza-eskaerari erantzuteko betebeharrari dagokionean.

Erakunde honek oso informazio gutxi du erreklamazio honen inguruan Laguardiako Udalak ez baitio eskatutako laguntzarik eman; informazio apur horren arabera, udalak ez dio erantzunik eman kexagileak aurkeztutako salaketari.

3. Azpimarratu behar dugu administrazio publikoek nahitaez eman behar dietela erantzuna aurkezten zaizkien idazki guztiei. Gainera, planteatutako salaketaren inguruan udalak gauzatu dituen jardueren berri ere eman behar zaio pertsona interesdunari.

Laguardiako Udalari berriki igorritako gomendio batean azaldu genuen eginda dagoen instalazio baten ondorioz aurkezten diren salaketei eta idazkiei erantzun administratiborik ez emateak Udalak gaizki funtzionatzen duela esan nahi duela. Honakoa adierazi genuen:

*“Orokorrean, administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio-prozedura bidez bideratu behar dituzte beren funtzio publikoak. Administrazio-jarduera horren jatorriak bi helburu ditu: batetik, administratuen eskubideak bermatzea, eta bestetik, interes publikoa ziurtatzea. Izan ere, Espainiako Konstituzioak berak (103.1 eta 105 artikulua) jasotzen du administrazio-tramiteen eta herritarrenganako erantzunaren bermea. Halaber, herritarrek administrazio ona jasotzeko eskubidea daukate, Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuneko (Lisboako Itunaren bidez egina) 41. artikuluan adierazitakoari jarraiki.*

*Administrazio ona jasotzeko eskubide honen barruan aipa genezake aurkezten*





*diren idazkiak jaso izanaren berri emateko, hori ofizioz sustatzeko eta planteatutako gaiak beren-beregi erantzuteko betebeharra. Halaber, administrazioak pertsona interesdunei jakinarazi behar die zein eskubide dituzten beren asmoa betetzeko. Nahiz eta kexa edo interesdunaren asmoa ez izan oso zehatza edo erreklamazioa administrazioaren jardura-eremutik at egon, administrazio publikoak aipatutako betebeharrak horiek bete beharko ditu.”*

4. Horrenbestez, ondoko lur-zatian egindako obrak kontrolatzeko udalaren esku-hartzea eskatzeko erreklamazio bat aurkeztuz gero, dagokion administrazio-izapidea eman behar zaio agiri horri.

Hirigintzari buruzko legediaren arabera udalaren kontrolaren menpe egon beharreko obrak salatzeko toki-administrazio horri igortzen zaion edozein komunikazio salaketa gisa sailkatu beharko litzateke eta, ondorioz, eskudun organoari helarazi beharko litzaioke.

Hirigintzan dagoen ekintza publikoa betez, salaketak administrazio-espeditente bat sortzea ekarri behar du, eta izapidetutako espeditente horrek ingurumenari buruzko legedia eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako arauak bete behar ditu. Gauzak horrela, kontuan hartu behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigor-ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikulua honakoa xedatzen duela, gutxienez: *“organo eskudunaren eskutik kasua ireki ote den azaltzen duen jakinarazpena eta, hala badagokio, hari amaiera ematen dion ebazpena jasotzeko eskubidea”.*

Horren harira, salatutako gaiak baloratu ondoren, organo eskudunak hirigintzaren gaineko diziplina-espeditente egokia ireki behar ote duen erabaki behar du, edo, bestela, eskatzailearen asmoa ezesten duen ebazpena egin. Edonola ere, ekintza publikoa betez, alderdi interesdunei jakinarazi egin behar zaie esku-hartzea artxibatuko dela, kasuan kasu dagozkion ekintzak eta errekurtsioak erabiltze aldera.

Horrenbestez, Arartekoak berretsi egiten du udalaren betebeharra dela kexagilearen idazkiei ahalik eta azkarren erantzutea, aurkeztutako eskabidean eta erreferentziako hirigintza-legedian aurreikusitako moduan erantzun ere.

### Ondorioa

Laguardiako Udalak Arartekoari laguntzeko erakutsi duen interes falta salatu behar dugu, eskatutako informazioa bidali ez digunez ezin izan baitugu Eusko



Legebiltzarraren ordezkari legez Arartekoak Administrazioaren legez kontrako zein bidegabeko ekintzak konpontzen saiatzeko esleituta duen zeregina bete.

Edonola ere, azaldutako gogoetak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideari erantzutea beharrezkoa dela nabarmendu beharreak ikusten gara. Horrenbestez, orain arte egin ez badu, salatutakoa ikuskatzeko eta haren hirigintza-kontrola egiteko bere eskumenen barruan dauden neurriak hartu beharko lituzke Laguardiako Udalak, eta bidezkoa izanez gero, hirigintzako legediaren arabera kasu honetan aplikatu beharreko neurriak ere hartu beharko lituzke.

